



Ziripot, Miel Otxin eta Zaldiko. Zuento de Carnaval

Aprende euskera con tus hijos y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/ziripot>

Ziripot ipuin kontalari bat izan zen. **Nahiz eta** nik ere ipuinak kontatzen **ditudan**, ez dut inoiz ikusi Ziripot, baina nire Nafarroako lagun batek istorio hau kontatu dit. **Inauterietan** gertatu zen **Lantz herrian**, hain zuzen ere.

Ziripot era un cuentacuentos y **aunque** yo también cuente cuentos, nunca he visto a Ziripot, pero un amigo de Navarra me ha contado esta historia que sucedió en **Carnavales** en el pueblo de **Lantz**.

Ziripot oso lodia eta **alfer hutsa** zen. Berari ez zitzaion batere gustatzen lan egitea baina jendearekin oso ondo moldatzen zen. Horregatik, Lantz herrian lagun asko zituen. Herriko jendeak ematen zion janaria, edaria, arropa.. behar zuen guztia **ipuin truke**. Horrela, oso pozik bizi ziren guztiak. Ziripot enparantzan zebilen beti ipuinak kontatzen eta jendearen irribarreak ateratzen.

Ziripot era regordete y **muy vago**. A él no le gustaba nada trabajar, pero se llevaba muy bien con la gente. Por eso tenía muchos amigos en Lantz. La gente del pueblo le daba todo lo que necesitaba (comida, bebida, ropa..) a **cambio de cuentos**. Y así vivían todos muy felices. Ziripot contando historias en la plaza y arrancando las sonrisas de la gente.

Baina egun batean, dena aldatu egin zen. Lantzera **Miel Otxin izeneko erraldoi bat** heldu zen. Gainera, erdi-gizon, **erdi-zaldia** zen gizaki bat laguntzen zuen. Miel Otxin eta bere laguna, Zaldiko oso gaiztoak ziren. Lantzera **ailegatu bezain pronto**, herritar guztiak beldurtu zituzten. —Hemendik aurrera, **nik neuk agintzen dut** herri honetan— oihukatu zuen Miel Otxinek. Auzokide batzuk kexatzen hasi ziren eta ixilik egotera behartu zituen Miel Otxinek.

Pero un día todo cambio. Un **gigante llamado Miel Otxin** llegó a Lantz junto a Zaldiko, una criatura medio hombre, medio caballo. Los dos eran muy malos, y **nada más llegar al pueblo** asustaron a todos.

—¡A partir de ahora **mando yo** en este pueblo! — gritó Miel Otxin. Algunos vecinos empezaron a quejarse, pero Miel Otxin les obligó a callarse.

Egunero auzokideek janaria eramaten zien erraldoiari eta Zaldikoari. Kalitate handiko produktuak izan behar ziren eta bero-bero eman behar zituzten. Kontua da, Ziripotek **ezer** ez zeukanez, ez zien **deus** ematen.

Miel Otxinek **leporatu zion** bere jarrera.

—Zerbait eman behar diguzu! — esan zion. Eta ostikada bat eman zion Zaldikok.



Ziripot gizajoa lurrera erori zen eta istorioak kontatzea proposatu zien baina Miel Otxinek **gorroto** zituen ipuinak.

Todos los días tenían que dar comida al gigante y a Zaldiko. Además, tenían que ser productos de primera calidad y llevárselo muy calientes. Ziripot, como no tenía **nada**, no les daba **nada** y Miel Otxin le **reprochó** su actitud.

—¡Nos tienes que dar algo! — le dijo, y le dio una patada Zaldiko.

El **pobre** Ziripot se cayó al suelo y le propuso contarle historias, pero Miel Otxin **odiaba** los cuentos.

Gau horretan herriko jendea elkartu zen hango baso batean.

—Miel Otxin eta Zaldiko joan behar dira. Lantz gure herria da, eta horrela ezin gara ibili. Inori zerbait **bururatzen zaio**?

—Behin Miel Otxini entzun nion **saguek beldurra ematen diotela**. Herri osoan zehar **gazta** zatiak jarri ahal ditugu eta horrela, saguak etorriko dira.

—Hori bai ideia ona!

Esa noche se juntó la gente del pueblo en bosque cercano.

—Miel Otxin y Zaldiko se tienen que marchar. Lantz es nuestro pueblo y así no podemos estar. ¿A alguien **se le ocurre** algo?

—Una vez le escuché a Miel Otxin decir que **los ratones le daban miedo**. Podemos poner trozos de queso por todo el pueblo y así vendrán los ratones.

—¡Qué buena idea!

Hurrengo egunean **gazta puskak** utzi zituzten herriko bazter guztietan eta laster saguak hurbiltzen hasi ziren.

Miel Otxin hainbeste sagu ikustean itzel **ikaratu zen**.

—Nondik atera dira saguak?

—Urtero **sagu-izurrite** bat pairatzen dugu — erantzun zion herriko batek.

—Zaldiko, herri madarikatu honetatik ihes egingo dugu! Goazen!

Al día siguiente dejaron trozos de queso por todas las esquinas del pueblo y pronto se acercaron los ratones.

Miel Otxin al ver los ratones se **asustó** mucho.

—¿De dónde han salido los ratones?

—Todos los años sufrimos una **plaga** de ratones. —le respondió un vecino

—Zaldiko, ¡marchemos de este maldito pueblo! ¡Vamos!

Hori dela eta, bakea itzuli zen herrira eta **izugarritzko jaia** egin zuten ospatzeko. Jai horretan Ziripoten **omenezko** honako kanta hau asmatu zuten:



Y así volvió la paz al pueblo y lo celebraron con una **gran fiesta**. Durante la fiesta se inventaron esta canción en **homenaje** a Ziripot:

- | | |
|------------------------------|--|
| - Tan, tan, tan, tan | - Tan, tan, tan, tan |
| - Nor da? Nor da? | - ¿Quién es? ¿Quién es? |
| - Miel Otxin naiz ni | - Soy Miel Otxin |
| - Esan, esan berriz | - Dilo otra vez |
| - Tan, tan, tan, tan | - Tan, tan, tan, tan |
| - Nor da? Nor da? | - ¿Quién es? ¿Quién es? |
| - Miel Otxin naiz ni | - Soy Miel Otxin |
| - Kanpora hor konpon. | - Te quedas fuera y te aguantas |
|
 | |
| - Tan, tan, tan, tan | - Tan, tan, tan, tan |
| - Nor da? Nor da? | - ¿Quién es? ¿Quién es? |
| - Ziripot naiz ni | - Soy Ziripot |
| - Esan, esan berriz | - Dilo otra vez |
| - Tan, tan, tan, tan | - Tan, tan, tan, tan |
| - Nor da? Nor da? | - ¿Quién es? ¿Quién es? |
| - Ziripot naiz ni | - Soy Ziripot |
| - Barrura dantzara | - ¡Ven adentro a bailar! |

Hortik aurrera urtero abesten da kanta hori **Aratusteetan**.

Y desde entonces todos los años se canta esta canción en **Carnavales**.